

2023/000002034 **DEKRETUA**

DEKRETUA. Hernani, 2023/07/10.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.3 artikulua ematen dizkidan ahalmenez baliaturik, behin Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 27.1 artikulua eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legearen 9. artikulua aztertuta, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa. Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea ebazpen honetan zerrendatuko eskumen edo ahalmenak, Alkatetzari dagozkionak:

1. Obra eta zerbitzuen kontratazioa, zerbitzu publikoen kudeaketa, administrazio kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta horien kopurua 250.000 eurotik gorakoa baldin bada, Foru Kontratazio Zentralaren bidez izapidetutako kontratazioak izan ezik.
2. Obra egitasmoak eta zerbitzuak onartzea, haiek kontratatzeke edo emateko eskumena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
3. Udalbatzaren ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea eta ondasun higiezinak eta ondare legeriaren mendean dauden eskubideak eskuratzea eta besterentzea, haien balioa 250.000 eurotik gorakoa baldin bada.
4. 250.000 eurotik gorako gastuak baimentzea eta baliatzea, bere ahalmenen barruan.
5. Planeamendu orokorraren garapenerako planeamendu instrumentuak onartzea, ez badaude Udalbatzari espresuki esleituak, bai eta hirigintza kudeaketa instrumentuak eta hirigintza egitasmoak ere.
6. Hirigintza lizentziak eta, oro har, obra nagusietarako lizentziak ematea obra txikiak I. eta II. motakoak izan ezik, salbuetsiz ordenantzek edo lege sektorialek Udalbatzari edo beste organo batzuei espresuki ematen dizkietenak. Hirigintza kontsultei dagokienez, kontuan harturik kontsulta horiek ez direla lotesleak herritarren ezta administrazio publikoendako ere, Alkateak edo Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotzi-ordezkariek erabakiko dute horien berri eman edo ez Tokiko Gobernu Batzarrari gaiaren ezaugarri tekniko eta inplikazio politikoak aintzat hartuta.
7. Aurri-aitorpenak egitea, berehalako aurri-aitorpenak izan ezik.
8. Saillkatutako I. motako lizentziak ematea, Udalbatzak tramitazioan zehar txostenak egin behar izatea gertatuz gero horiek egiteko ardura Alkatetzari gordeko zaiolarik.
9. Enplegu eskaintza publikoa onartzea, Udalbatzak onartutako aurrekontuarekin eta plantillaren arabera.
10. Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onartzea, bai eta lanpostuen lehiaketetarakoak ere, eta finkoak eta aldizka-aldizkakoak ez diren ordainsariak banatzea.
11. Atzerabidezko akzioa gauzatze aldera erantzukizun administratiboko espedienteak hasteko erabakia hartzea eta instruktorea izendatzea, eskumen hori beste organo bati ez badagokio.
12. Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko deialdiak egin eta oinarri arautzaileak onartzea.
13. Beste administrazioekin eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin lankidetzahitzarmenak onartzea, eskumen hori beste organo batena ez bada.

Era berean, indarrean dagoen legeriak beren-beregi ezartzen du eskuordetzak aldatu edo baliogabetu ahal izango direla edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, eta aintzat hartu ditut honako lege eta artikulua hauek ere:

a) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 8. eta 10.1 artikulua.

b) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 y 23.2.b) artikuluek.

c) Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu, Araubide Juridikoa arautzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 43.2 eta 43.3 artikulua.

Bigarrena. Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetze honen xede diren gaiei buruz hartuko dituen erabakiotan, berariaz adieraziko da eskuordetzaren indarrez hartu direla ebazpen horiek, eta kide anitzeko organoaren erabakiek organo delegatzaileak eskuordetu ez dituen gaiei buruz hartuko dituen erabakien balio bera izango dute.

Hirugarrena. Eskuordetzearen iraunaldiari dagokionez, ondorio juridikoak izango ditu Udalbatzaren agintaldi osoan; hala ere, eskuordetzak aldatu edo baliogabetu ahal izango dira edozein unetan legezko baldintzak alde aurretik betez gero.

Laugarrena. Dekretu honen berri ematea Tokiko Gobernu Batzarrari eta Hernaniko Udalbatzarrari egingo duen hurrengo ohiko osoko bilkuran. Halaber, ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta jendaurrean jarriko da Hernaniko Udaletxeko iragarki taulan.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Alkatea

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Idazkaria

Dekretu hau elektronikoki sinatuta dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiazta ditzakezu QR kodea edo egoitza elektronikoaren bidez.

